

## **PRENTSA OHARRA**

### **Bizkaiko Psikologia Elkargo Ofizialak Eusko Jaurlaritzaren Larrialdietako merezimenduaren diploma jaso du Psikobizi ekimenarengatik**

**Aintzatespen hau 2020ko martxotik maiatzera bitartean egindako lanarengatik eman digute, hain zuzen ere, itxialdiaren hilabete gogorrenetan, herritarrei doako laguntza psikologikoa ematean. Eusko Jaurlaritzak Segurtasun Sailaren bidez ematen duen urteko sari honek Larrialdietan eta Babes Zibilean merezimenduzko ekintzak egin dituzten erakundeak eta herritarrak nabarmendu nahi izan ditu.**

Sari horrekin Psikobizi osatzen zuten kide guztiek asistentzia, arreta eta laguntza emateko egin zuten lana nabarmendu dute baina, era berean, psikologo guztiek bakarka egindako lana aintzat hartu dute, izan ere, beraien lanpostutik laguntza emozionala eta psikologikoa jaso behar izan zuten herritarrei haien zerbitzuak eskaini zizkioten.

Aintzatespen hori berariaz helarazi digute Eusko Jaurlaritzako Larrialdi eta Meteorologia Zuzendaritzatik eta, era berean, eskerrak eman dizkigute elkargoaren laguntzagatik eta itxialdian herritar guztiei emandako arretagatik.

Psikobizi Bizkaiko Psikologia Elkargoaren ekimena izan zen, 2020ko itxialdiaren unerik zorrotzenezan herritarrei doako laguntza psikologikoa eskaintzeko asmoz abiatutakoa. GIPECeko (Larrialdietan eta Katastrofeetan Esku Hartze Psikologikorako Taldeko) psikologoek artatu zuten zerbitzua. Taldekideen kopurua 60 lagunetik gorakoa zen eta hiru baliabide erabili zituzten kontsultak jaso eta artatzeko: WhatsAppeko mezuak, telefonoa eta posta elektronikoa.

Psikobizik 500 kontsulta baino gehiago artatu zituen. Kontsulten arrazoi nagusiak honako hauekin lotuta zeuden: antsietatea, estres akutua, beldurra eta, neurri txikiagoan, gaixo zeuden senideekiko kezka, dolua, bizikidetza arloko arazoak eta gertuoen ahuleziak edo arriskuko egoerak eragindako kezka.

Azkenik, Bizkaiko Psikologia Elkargotik zorionak eman nahi dizkiegu Gipuzkoako eta Arabako PEOei, pandemian egindako lan solidarioagatik ere saridunak izan direlako.

**Bizkaiko Psikologia Elkargoa.**